




HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

■ OHOKO 8. mailaren azterketa A, B eta D ereduetan

H.I.N.E.
HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN



GLOTODIDAKTIKA-LANAK 38

Euskara Zerbitzua
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila


GLOTOLOGIA-LANAK 38

Lehen argitaraldia: 1991ko abendua
Ale-kopurua: 2.000
© Euskal Herriko Autonomi Elkartaren Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen Kalea, 2 - 01011 Gasteiz. Euskal Herria
Azala: IRUDISEINU
Fotokonposaketa: RALI, S.A. Particular de Costa, 12-14 - 7.º Bilbo
Inprimatzailea: Itxaropena, S.A. - Araba Kalea, 45 - Zarautz
ISBN: 84-4570086-3
Legezko gordailua: 1.291/91

HINE

HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN

**OHOkoko 8. mailaren azterketa
A, B eta D ereduetan.**



Gasteiz 1991

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA

HIVE

HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA

ESKOLAN

OHOKO 8. mailaren azterketa
A, B eta D ereduetan.

EGILEAK: Josu Sierra eta Ibon Olaziregi, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailekoak.

AHOLKULARI ESTATISTIKOA: Jesus Izarra, EJEkoa.

INFORMATIKARIA: Asun Muñoz, EJEkoa.

ESKERRAK, baita ere, azterlanean parte hartu duten ikasle, irakasle, ikuskari eta inkestagileei.

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
HITZAURREA	9
1. IKERKETAREN AZALPENA	11
2. ALDAGAIEN DESKRIBAPENA	13
3. HIZKUNTZA-PROBAK: DESKRIBAPENA ETA EMAITZAK	19
4. PUNTUAZIO OROKORRAK	25
5. HIZKUNTZA-TESTEN EGOKITASUNA	29
6. BARIANTZAREN ANALISIA	33
7. ERDALDUNAK EUSKALDUNTZEN: AUKERA DESBERDINEN AZTERKETA	39
8. EUSKARAREN ERABILERA D EREDUAN	43
9. AZALPEN BATERABILDUA	49

HITZAURREA

Euskal gizartean ditugun bi hizkuntzen arteko desoreka nabarmena da. Gaztelaniak gizarteko funtzio formalen etarako balio izan du orain arte eta jenderik gehien-gehienak ezagutzen du. Euskara, aldiz, familia, lagunartea eta eliza bezalako giroetan mantendu da batipat, eta biztanleen laurdenak ezagutzen du. Desoreka honek mendeetan iraun du eta areagotu ere egin da. Gaur egun, ordea, badugu zorionez egoera hori, hiritarren borondateari jarraiki, aldatzen lagundu diezagukeen legeria. Hezkuntza-arloari dagokionez, ikasleei bi hizkuntzak irakasteko mandatua du herri-administrazioak. Ez nolahi irakatsi gainera: ikasleek beren obligaziozko eskola-aldia amaitzen dutenerako bai euskaraz bai gaztelaniaz ongi jakin behar lukete. Bistan da helburu honetatik urrun samar gaudela oraindik. Baina ezin uka irakas-sistema azken urteotan zentzu horretan egiten ari den ahalegin sendoa. Aurre-rabide honen nondik norakoa eta garrantzia justu-justu ezagutzeko zenbait azterlan egin izan da irakasmaila desberdinetan: eskolaurrean, OHOk 2. mailan, OHOk 5. mailan... Oraingo honetan OHOk 8. maila hartu da aztergai. Lehendik ere bazen ebaluazioren bat irakasmaila honetan eta eredu zehatz bati atxikita. Gaur aurkezten dugun honetan, berriz, hiru ereduak aztertzen dira. Azterlanak baditu, hala ere, bere mugak: irakurriaren ulermena eta idazmena neurtu dira soilik, mintzamina oraingoz bazter utzita. Trebetasun hauek bai euskaraz bai gaztelaniaz neurtu dira, hizkuntza bietarako irizpide berdinak erabiliz.

Eskolatik gero eta ikasle elebidun gehiago irteten dela gauza aski garbia bada ere, oraindik bide luzea dugu urratzeko. Aposturik larrien etariko bat haur erdaldunei euskara ongi irakastea da, eta arlo honetan, konbentzitu nago, gauzak gero eta hobeto egiten dira irakaslegoaren profesionaltasunari esker. Haatik, ez da ahantzi behar gaztelaniaren irakaskuntza. Egia da hizkuntza hau, gizartean daukan presentziari esker, aski txikitatik ikasten dutela haur gehienek. Horrek, ordea, ez du segurtatzen gaztelania-maila egokia hiz-

kuntza-alor guztietan: eskolak badu zereginik ikasleen espresioa hobetzen, idazmena garatzen, hiztegia zabaltzen, etab.

Bestalde, eta bukatzeko, zera esan nahi nuke: gurea bezalako irakas-sistema elebidun batean bi hizkuntzek gizabanakoarengan duten garapena estuki lotua dago. Ikasleengan hizkuntzarekiko ardura eta sentsibilitatea suspertzea benetan lan garrantzitsua da eta lan hori ez dagokie euskara eta gaztelania-irakasleei bakarrik, irakasle guztiei baizik.

María Antonia Ozcáriz

PEDAGOGI BERRIKUNTZARAKO ZUZENDARIA

HITZABURUA

Lehenik eta berriro, gurea bezalako irakas-sistema elebidun batean bi hizkuntzek gizabanakoarengan duten garapena estuki lotua dago. Ikasleengan hizkuntzarekiko ardura eta sentsibilitatea suspertzea benetan lan garrantzitsua da eta lan hori ez dagokie euskara eta gaztelania-irakasleei bakarrik, irakasle guztiei baizik.

Bestalde, eta bukatzeko, zera esan nahi nuke: gurea bezalako irakas-sistema elebidun batean bi hizkuntzek gizabanakoarengan duten garapena estuki lotua dago. Ikasleengan hizkuntzarekiko ardura eta sentsibilitatea suspertzea benetan lan garrantzitsua da eta lan hori ez dagokie euskara eta gaztelania-irakasleei bakarrik, irakasle guztiei baizik.

1. IKERKETAREN AZALPENA

Euskara eta gaztelania-mailaren neurketa eta ebaluazio hau aurreko beste azterlan-sail batekin lotzen da, EIFE izenekoekin alegia. Azterlan horiek ematen duten ikuspegia osatzera dator honako hau, OHOk 8. mailan zentratuz. Oraingo honetan erabili diren hizkuntza-testak berriak izan dira: Irakurriaren Ulermena eta Idazmena hartu dira kontuan, ahozko trebetasunak alde batera utziz.

Ebaluatzen den populazioa EIFE 1ean OHOk 2. mailan zegoen berbera da, eta beraz EIFE 2n OHOk 5. mailan aztertu zena. Nolanahi ere, populazioa berbera izanagatik, lagina desberdina izan da. Eskolak eta ikasleak desberdinak izan dira, hortaz.

XEDEA

Lanaren xedeak hauek dira:

1. Ikasleek Irakurriaren Ulermenean eta Idazmenean, bai euskaraz bai gaztelaniaz, duten maila neurtzea OHOk 8. mailan eta A, B eta D irakastereduetan.

2. Hizkuntza-mailaren osagarri izan daitezkeen beste zenbait datu eta faktore soziolinguistiko eta didaktiko jaso eta aztertzea.

3. Irakastereduen barruan ematen diren zenbait modalitate desberdin alderatzea.

4. Euskarak eskolan duen erabilera aztertzea, bereziki D ereduan.

LAGINA

1989-90 ikasturtean 38.833 ikasle zeuden OHOk 8. mailan. Horietatik 27.691 A ereduan; 3.773 B-n eta 7.198 D-n. Beste 171 ikasle euskara-emankizunik gabe zegoen. Ageri denez, A eredia da nagusi diferentziaz. B eredia, berriz, oso txikia da, eredu hau eskoletan sartzen hasi zeneko promozio bat bait da.

Laginketa-lana Ikuskaritza Nagusiaren esku joan da. Lagina estratifikatua eta proportzionala izan da. Estratifikaziorako aldagaitzat ikastetxe-mota (sarea), irakasteredia eta udal-tamaina hartu dira. Unitatea gela da.

Laginketa bidez 79 ikasgela hautatu dira:

47 A ereduan, 12 B-n eta 19 D-n. Ikasle-kopurua, berriz, 2.318koa izan da: 1.500 A-n 268 B-n eta 550 D-n.

KANPO-LANA

Testen pasaketa, inkesten pasaketa eta bestelako datuen bilketa 1990eko maiatzaren azkenaldean egin dira.

BILDUTAKO DATUAK

a) *Hizkuntza-gaitasuna*

Hizkuntza-testek Irakurriaren Ulermena eta Idazmena neurtu dute, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

b) *Haurraren ezaugarriak*

Ikasleei dagozkien hainbat datu jaso dira: familia barneko hizkuntz harremanak, lagunartekoak, familiaren maila sozio-profesionala, adimen-koefizientea, eskola-errendimendua etab.

c) *Eskola-ezaugarriak*

Eskolarekin eta irakaslearekin zerikusia duten datuak ere bildu dira: ikastetxe-mota (publikoa, ikastola, pribatua), tamaina, gelaren irakasteredia, euskarazko lanaren proportzioa, gelako euskaldun-portzentaia, irakaslearen esperientzia, bere euskarazko gaitasun-agiriak, etab.

d) *Inguruaren ezaugarriak*

Ikastetxea dagoen lurraldea, zona soziolinguistikoa eta udalaren tamaina ere jaso dira.

DATUEN TRATAERA

Tratamendu informatikoa Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkar-tearen (EJIE) esku joan da. SPSS-X eta SPAD pakete informatikoak erabili dira nagusiki.


2. ALDAGAIEN DESKRIBAPENA

Jaso diren datuetik batzuk aukeratu dira ondoko orrialdeetan erakusteko. Horra, beraz, aldagai horien maiztasunak, zenbait iruzkinez hornituak.

GURASO EUSKALDUNAK

Ama euskalduna dutenen portzentaia desberdinak ditugu eredu bakoitzean. D eredu da dudarik gabe euskaldunena, baina B-n ere euskaraz hitz egiten dakiten amak % 26ra iristen dira. B eredu hau euskaldun samarra da beraz, nahiz gurasoen gehiengoak erdaldun hutsa izan.


Aita euskaldunen datuak ere antzekoak dira.



Datu hauetatik abiatuta aldagai berri bat sortu dugu: AMA-HIZKUNTZA deitu diogu, eta gutxienez gurasoetariko batek euskaraz jakitea hartu da baldintzat. Kasu honetan dago A ereduko % 9,6; B ereduko % 36,1; eta D-ko % 69,6. Haurraren bene-benetako ama-hizkuntza zein den jakitea zaila da, baina aldagai hau hurbilketa baliagarria da ondorengo analisietarako.

ETXEKO HIZKUNTZA

Beti edo gehienetan gaztelaniaz aritzen diren familiak elkartzen baditugu zera ikus daiteke: nagusiki gaztelaniaz aritzen direnak % 96,2 direla A ereduan, % 73,6 B ereduan eta % 37,5 D-n.




ESKOLAKO LAGUNEKIN

Adin honetako (13 bat urte) neska-mutilei beren eskolako lagunekin nola hitz egiten duten galdetu zaienean hauxe erantzun dute: A ereduan gaztelania soila erabiltzen dela esan daiteke; B ereduan ere gaztelania da nagusi, nahiz euskarak kasu batzuetan nolabaiteko lekua izan.

D ereduan, azkenik, jokabide desberdinetan banatzen dira ikasleak: beti edo gehienetan gaztelaniaz aritzen direla aitortzen du % 35ak. Zifra hori handiagoa ere izan daiteke errealitatean, baina ez dugu uste aitortzen dutena baino jokabide euskaldunagoa dutenik.

3. irudia Eskolako lagunekiko hizkuntza




Kaleko lagunekin dituzten harremanetan euskararen portzentaia jaitxi egiten da: B ereduan % 10etik behera dira kalean nagusiki euskaraz ari-
tzen direnak, eta D ereduan % 50era ez dira iristen.


IRAKASLEAREKIN

Irakaslearekin gelatik kanpora ze hizkuntza erabiltzen duten galdetu
zaienean erantzunak oso homogeneoak izan dira A eta D ereduetan. Lehe-

4. irudia Irakaslearekiko hizkuntza B ereduan



3. irudia Eskolako lagunekiko hizkuntza




Kaleko lagunekin dituzten harremanetan euskararen portzentaia jaitxi egiten da: B ereduan % 10etik behera dira kalean nagusiki euskaraz ari-zen direnak, eta D ereduan % 50era ez dira iristen.

IRAKASLEAREKIN

Irakaslearekin gelatik kanpora ze hizkuntza erabiltzen duten galdetu zaienean erantzunak oso homogeneoak izan dira A eta D ereduetan. Lehe-

4. irudia Irakaslearekiko hizkuntza B ereduan




nengoan gaztelaniaz egiten dute eta bigarreanean euskaraz. B ereduan, al-
diz, ez dago batasunik puntu honetan: % 45ek beti euskaraz egiten duela
esaten du eta gehienetan euskaraz % 27k. Horrezaz aparte badira irakas-
learekin beti edo gehienetan gaztelaniaz mintzatzen direnak (% 25). Da-
tuok interpretatzerakoan kontuan hartu behar da B eredu askotan irakasle
guztiak ez direla euskaldun izaten.

IRAKASKUNTZA ERTAINETARAKO HIZKUNTZA

Batxilergoa edo Lanbide Heziketa zein hizkuntzatan ikasi nahi luke-
ten galdetu zaie 8.mailako ikasle hauei:

A ereduan gehienek gaztelaniaz jarraitu nahi dute, nahiz euskararen
bideak ere jarraitzaileak izan. D ereduan, aldiz, gehien-gehienek euskara
hutsez jarraitu nahi dute. Azkenik, B ereduan bada euskara hutsean edo
gaztelania hutsean ikasi nahi lukeenik, baina gehiengoak bi hizkuntzetan
(Gehiena euskaraz + Gehiena gaztelaniaz) estudiatu nahi luke Irakaskuntza
Ertainetan.

5. irudia
Ertainetarako hizkuntza




GURASOEN MAILA SOZIOPROFESIONALA

Aitaren maila sozioprofesionalari begiratzen bazaio, zenbait dife-
rentzia igartzen dira. Badirudi mailarik hoberena, batezbestean, D ereduan
dagoela.

Ikastetxe-motaren arabera ikastetxe publikoetan besteetan baino
(pribatu eta ikastoletan baino) maila profesional apalagoa agertzen da.

6. irudia
Aitaren maila sozioprofesionala




Amarik gehienak etxeko lanetara dedikatzen dira (% 70 inguru). Fenomeno hau nabarmenagoa da A eremuan eta eskola publikoan.

EUSKARAZKO LANAREN PROPORZIOA

Gauza jakina da A eremuan jakintzagaiak, euskara izan ezik, gaztelaniaz irakasten direla. D eremuan alderantziz: jakintzagaiak euskaraz irakasten dira, gaztelania bera salbu.

7. irudia
Euskarazko lanaren proportzioa
B eremuan



B ereduan, berriz, ezagupenak bi hizkuntzen bidez irakasten dira. Hizkuntza bakoitzari ematen zaion lekua, ordea, ez da berdina ikastetxe guztietan: kasu askotan erdi eta erdi egiten bada ere, beste askotan denboraren erdia baino gehiago dedikatzen zaio euskaraz irakasteari. Irudian ikus daiteke gai honetan ikasgelak nola banatzen diren jasotako laginean.

ZONA SOZIOLINGUISTIKOA

Autonomi Elkartea zona soziolinguistiko desberdinetan banatzeko *Soziolinguistikazko mapa* (1) izeneko liburua hartu da gidari. Bertan, beste hainbat daturen artean, biztanlegoaren hizkuntz gaitasuna udalerrika nola banatzen den ikus daiteke (ikus 28. orrialdeko mapa). Udalerriak sei motatan banatzen dira, bertako euskaldun-kopuruaren arabera (2):

1. zona: euskaldunik ez
2. zona: % 5 baino gutxiago
3. zona: % 5-24
4. zona: % 25-49
5. zona: % 50-75
6. zona: % 75 baino gehiago

1. zonako udalerririk, hau da, euskaldunik gabekorik, ez dago ia bategi. Ondorioz, laginean ez da ikastetxerik egokitu zona horretan. Lagineko ikasle gehienak 3. zonakoak dira (% 46), gero datoz 2., 4. eta 5. zonetakoak (% 15 inguru bakoitzak). Seigarren zonan, hau da udalerri euskaldunenetan, ikasle gutxi egokitu da (% 4), zonaren pisu demografikoa ere ez baita hainbestekoa.

A ereduak 2. eta 3. zonetan kokatzen da batipat, hau da udalerri erdaldunenetan. B eta D ereduak, berriz, ez dira zona euskaldunetara bakarrik mugatzen: laginean 3., 4., 5. eta 6 zonetan agertzen dira.

(1) Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, *Soziolinguistikazko Mapa* Gasteiz, 1989.

(2) *Soziolinguistikazko mapan* ez zaio zenbakirik ematen zona bakoitzari. Hemen agertzen diren zenbakiak azterlan honetarako jarri dira bereziki.

3. HIZKUNTZA-PROBAK: DESKRIBAPENA ETA EMAITZAK

Hizkuntza-proba bakoitza hiru azpiprobaz osatuta dago. Horrela, euskaraz honako hiru azpiproba hauek ditugu (1):

- Irakurriaren Ulermena 1
- Irakurriaren Ulermena 2 eta
- Idazmena

Irakurriaren Ulermena 1 (IU1) proba erraza da, batipat A ereduko ikasleei zuzendua. Testu sinple eta labur bat irakurri behar dute ikasleek. Testua birritan irakurtzeko denbora ematen zaie. Gero, testua kentzen zaie eta aukera anitzeko 12 galdera erantzun behar dituzte, testua orokorki ulertu ote duten ikusteko.

Irakurriaren Ulermena 2 (IU2) proba zailagoa da, B eta D ereduko ikasleei begira egindakoa. Testu luzeago eta konplexuagoa hartzen da oinarri. Aukera anitzeko 15 galdera erantzun behar dira testu horri buruz. Proba honek irakurmen intentsibo edo zorrotza neurtu nahi du. Horregatik ikasleak testua kontsulta dezake galderei erantzuterakoan.

Idazmen-proban ikasleek idatziz adierazi behar dute marrazki batego gertaera, era laburrean. Proba hau hiru ereduetako ikasleei zuzendua dago, bakoitzak bere gaitasunaren arabera egin dezan.

Idazmen-proba zuzentzeko eskala kualitatibo bat erabili da, idazmen-maila desberdinak banatzen lagundu duena. Testuaren adierazgarri-

(1) Proba hauek argitaraturik daude dagoeneko: J. SIERRA, I. OLAZIREGI, *Euskara probak*, Gasteiz 1991.

tasuna, hizkuntza-akatsak, ortografia-akatsak eta hiztegia hartu dira kontuan, orokorki bada ere, puntuazioa ematerakoan. Modu sinple-sinplean adierazita, eskala honelakoa da:

0. Ezer ez edo hitz solteak
1. Idazkera egituratu gabea
2. Idazkera oso txarra
3. Idazkera txarra
4. Idazkera arrunta
5. Idazkera ona
6. Idazkera bikaina

Gaztelaniazko probak euskarazkoen paraleloak dira:

- Comprensión lectora 1 (CL1)
- Comprensión lectora 2 (CL2)
- Expresión escrita (ESC)

Horrela bi hizkuntzetarako lortzen diren puntuazioek ezaugarri beretsuak izango dituzte, nahiz erabat konparagarriak izan ez.

Hona hemen azpiproba bakoitzean lortu diren batezbesteko eta desbiderapenak:

Irakurriaren Ulermena 1 (guztira 12 puntu)

	$\bar{X}$	S
A eredua	6,1	2,6
B eredua	9,62	2,2
D eredua	10,32	1,67


Irakurriaren Ulermena 2 (guztira 15 puntu)

	$\bar{X}$	S
A eredua	3,63	1,97
B eredua	7,14	3,07
D eredua	9,36	3,12

Idazmena (guztira 6 puntu)

	$\bar{X}$	S
A eredua	1,5	1,04
B eredua	3,79	1,06
D eredua	4,33	0,86

8. irudia Idazmena



Gaztelaniazko probetan, berriz, honako emaitza hauek jaso dira.

Comprensión lectora 1 (guztira 12 puntu)

	$\bar{X}$	S
A eredua	8,04	1,98
B eredua	7,78	2,39
D eredua	7,83	2,16


Comprensión lectora 2 (guztira 15 puntu)

	$\bar{X}$	S
A eredua	8,88	2,99
B eredua	8,37	3,40
D eredua	8,36	3,42

Expresión escrita (guztira 6 puntu)

	$\bar{X}$	S
A eredua	4,19	0,81
B eredua	4,31	0,94
D eredua	4,19	0,79

9. irudia
Expresión escrita



Emaitza hauetan aski garbi ikusten da gaztelaniazko probetan hiru ereduek antzeko puntuazioak ateratzen dituztela. Aitzitik, euskarazko probetan gradazio nabarmena ageri da. Hizkuntza honetan puntuazio bajeenak A eredukoak dira. Altuenak, berriz, D eredukoak. B eredua, azkenik,

beste bien artean gelditzen da, baina bere puntuazioak hurbilago daude D eredutik A-koetik baino.

Komenta ditzagun emaitzak ereduz eredu. A-ri dagokionez, IU1 proba da eredu honen euskara-mailari gehien egokitzen zaiona. Badirudi, beraz, eredu honetako ikasleak, edo ikasleen portzentaia on bat, euskarazko testu idatzi sinpleak ulertzeko gauza dela (1).

Idazterakoan berriz, A ereduko ikasleek oso esaldi sinpleak eta komunikazio-indar eskasekoak egiten dituzte. Batezbestean ez dira gai idea batzuk lotu eta idatziz emateko. Badira gela edo ikasle soilak maila altuagoa lortzen dutenak, baina orohar A ereduak momentu honetan eskaintzen duen euskara-maila ikasleen beren posibilitateetatik behera gelditzen da. Ikasleen ahalmen komunikatibo eta intelektualak desaprobetxatuak daudela dirudi bigarren hizkuntzaren arloan.

B eredua nahiko ongi dabil irakurriaren ulermenean. Bai IU1 proban, eta bai zailagoa den IU2-n, D eredutik nahiko hurbil dago. Hala ere, ez da iristen D ereduko puntuazioetara. Ikasle hauek informazio konplexu samarra asimila dezakete euskara idatziaren bitartez, baina ezin uka D eredu-koek baino oztopo gehiago aurki ditzaketela hizkuntza-puntu batzutan. Eskolan erabiltzen diren liburu eta testu idatziek pedagogikoki egokiak behar dute izan kasu guztietan, baina ardura hori bereziki hartu behar da kontuan bigarren hizkuntzan ikasten ari direnekin. Eta hau da B ereduko ikasle gehien kasua.

Produkzioari gagozkiolarik, eredu honetako ikasleen idazkera inperfekto samarra da. Ikasleen % 42k idazkera txarra (edo hortik beherakoa) dauka, portzentaia handia da D ereduko % 11 rekin konparatzen badugu. Gaztelaniaz idazkera txarra dutenen portzentaia % 10-14 bitartean dago. B ereduko ikasle mordoska bat euskara-maila onargarri batera iristen bada ere, akats gramatikal askotxo ageri da eredu honetan, eta idazkera oneko ikasle gutxi agertzen da.

D ereduan, azkenik, bai irakurmenean eta bai idazmenean lortzen diren puntuazioak normaltasunaren barnean daudela esan daiteke. Orohar, erdaldunek gaztelaniaz ateratzen dituzten puntuazioekin konpara daitezke D eredukoek euskaraz lortzen dituztenak. Hala ere, gaztelaniazko irakurmen-probak, lehenenengoa batik bat, euskarazkoak baino pixka bat zailagoak izan direla dirudi.

Gaztelaniazko puntuazioak berdintsuak dira hiru ereduetan. B eta D ereduetako ikasleek idatziaren ulermen ona dute gaztelaniaz eta idazmena ere landuta dutela esan daiteke, ez bait da A eredukoekiko alde signifikatiborik agertzen.

(1) Proba honetarako testu labur bat erabili zen, egunkari batetik ateratako testua hain zuzen ere, probarako moldatua. Hitz zail batzuen esanahia erdaraz ematen zitzaien laguntza gisa; baina, hala ere, eredu honetako ikasleek landu gabeko zenbait forma eta egitura agertzen zen bertan.

4. PUNTUAZIO OROKORRAK

Irakurriaren Ulermen eta Idazmen azpiproben puntuazioak elkartuta puntuazio orokorra eraiki da ikasle bakoitzarentzat. Puntuazio orokorra lortzeko koefiziente jakin bat aplikatu zaio azpiproba bakoitzeko puntuazioari. Hona hemen erabilitako formula:

$$\text{EUSKARAZKO PUNTUAZIO OROKORRA} = \text{IU1} + \text{IU2} \cdot 2 + \text{IDA} \cdot 3$$

eta gaztelaniaz berdin:

$$\text{GAZTELANIAZKO PUNTUAZIO OROKORRA: CL1} + \text{CL2} \cdot 2 + \text{ESC} \cdot 3$$

Ondorioz, hutsetik hirurogeira bitarteko puntuazioa lortu da ikasle bakoitzarentzat. Gero puntuazio orokor honen batezbesteko eta desbiderapenak kalkulatu dira. Hona hemen euskarazkoak:


	Euskara	
	$\bar{X}$	S
A eredua	17,90	6,68
B eredua	34,65	9,22
D eredua	42,03	8,72

eta gaztelaniazkoak:


	Gaztelania	
	$\bar{X}$	S
A eredua	38,40	8,32
B eredua	37,49	10,24
D eredua	37,15	9,57

Batezbesteko hauek irudi batean ematen baditugu, honelako konparazio grafikoa daukagu:

10. irudia
Hizkuntza bien batezbestekoen konparazioa



11. irudia
Euskarazko puntuazio orokorrak




Ikusten denez, hizkuntzen arteko desoreka handiena A ereduan gertatzen da, non euskara-ezaguera oso bajua bait da. Orobat, ikus daiteke euskarazko proba pixka bat errazagoa izan dela D eredurako gaztelaniazkoa A eredurako baino.

Puntuazio hauen histogramak erakusteko ondoko bi grafikoak pres-tatu dira. Bertan 10 interbalotan banatu da puntuazioa.

Euskarazko histogrametan ikus daitekeenez, irakasteredu bakoitza mundu desberdin bat da. Idatzizko proba hauen arabera B ereduaren puntuazioak D-koetara hurbiltzen dira, A eredua puntuazio bajuetan, aparte samar, gelditzen den bitartean.

12. irudia
Gaztelaniazko puntuazio orokorrak



Gaztelaniaz, aldiz, hiru populazio desberdinez hitz egin beharrean populazio bakar batez hitz egin beharko litzateke, ereduen arteko diferentziak oso txikiak bait dira. Populazio orokor honek 38,04 puntuko batezbestekoa izango luke eta 8,76 puntuko desbiderapena.

5. HIZKUNTZA-TESTEN EGOKITASUNA

Irakurriaren Ulermena neurtzen duten bi azpiprobak aukera anitzeko itenez osatuak daude. Kuder-Richardsonen 2. formularen bidez kalkulatu dira beren fidagarritasunak.

Euskarazko probek lagin osoan izan dituzten fidagarritasunak honako hauek dira:

	IU1	IU2
Lagin osoa	0,79	0,78

Ereduka, berriz, beste indize hauek eman dituzte:

	IU1	IU2
A eredua	0,69	0,46
B eredua	0,66	0,67
D eredua	0,60	0,71

Gaztelaniaz, lehen ere ikusi denez, ez du zentzu handirik ereduen artean bereizteak. Horregatik lagin osoari dagozkion fidagarritasunak ematen dira soil-soilik:

	CL1	CL2
Lagin osoa	0,51	0,71

Hamabi edo hamabost itemez osaturiko azpiprobak izanik, fidagarritasun neurri hauek egokiak direla esan daiteke. Kontuan hartu behar da test osoa luzeagoa dela, hiru probaz osatzen dela, alegia, eta testa luzeagoa izateak fidagarritasun handiagoa dakarrela normalean. Hau da, euskarazko edo gaztelaniazko puntuazio orokorrak fidagarritasun onekoak direla esan daiteke.

Testen baliotasuna egiaztatzeko OHOk 7.mailako notekin korrelazionatu dira puntuazioak.

Euskaraz lagin osoarekiko korrelazioak ez du zentzurik, euskara-maila oso desberdinak epaitzen bait ditu irakasleak eredu bakoitzean.

Korrelazioa ereduak egin da beraz:

	Euskara
A ereduak	0,35
B ereduak	0,35
D ereduak	0,22

Gaztelaniazko testean korrelazioa lagin osoarekin egin daiteke. Hona emaitza:

	Gaztelania
Lagin osoa	0,32

Baliozkotasun-neurriak ere normalak dira, honelako korrelazioetan gertatu ohi direnak.

Proba baten egokitasuna epaitzerakoan, fidagarritasunaz eta baliozkotasunaz gain beste datu batzuk ere kontuan hartu behar dira; esate baterako, puntuazioen batezbestekoa eta desbiderapena. Halaber, neuritzen diren edukinen egokitasuna, neurtzeko sistemaren ezaugarri pedagogikoak etab. aldeztu aurretik zaindu beharreko gauzak dira.

Azterlan honetan hizkuntza-maila desberdinetako ikasleak zeuden, batipat euskarari dagokionez, eta azpiprobak ikasle-multzo desberdinentzat diseinatu dira. Orohar zenbait ohar labur egin daiteke azpiproben egokitasunaz:

IU1 proba egokia izan da A eredurako, bertarako pentsatua bait zegoen. B eta batez ere D ereduak errazegia gertatu da. IU2, berriz, B eta D ereduak pentsatua zegoen eta egokia gertatu da bi eredu horietan. A eredurako zaila izan da.

CL1 probak erraz samarra izan behar zuen, euskarazko IU1 ekiko gutxienezko paralelotasuna matentzeko. Hala ere, euskarazkoa baino pixka bat zailagoa izan da. Gutxienezko egokitasuna badauka.

CL2 egokia izan da hiru ereduatarako.

Idazmen-proba eta gaztelaniazko bere parekoa den Expresión Escrita delakoa, ez dira "proba objetibo" deitzen diren horietakoak. Eskala kualitatibo baten bidez zuzentzen dira eta aski egokiak gertatu dira hiru ereduatarako.

6. BARIANTZAREN ANALISIA

Bariantzaren analisiak egiteko menpeko aldagaitzat euskara-puntuazioa hartu da. Jasotako beste hainbat datu aldagai aske edo esplikatibo moduan utzi dira. Eskema honekin "aldagai bakarreko bariantza-analisia" egin da, aldagai aske bakoitzak euskara-puntuaziorekin duen zerikusia aztertutik nahirik.

Prozedura berbera jarraitu da gaztelaniarekin ere. Ondoren, aldagai indartsuenen aukeraketa egin da eta aldagai anitzeko bariantza-analisi desberdinak egin dira.

Hona hemen euskara-analisan, lagin osoa harturik, lortu diren aldagai nagusien F estatistikoak eta bere signifikaizio-mailak:

Lagin osoa

	EUSKARA	
	F	Signif.
Eredua	57,98	(0.000)
Ama-hizkuntza	53,86	"
Eskola-errendimendua	37,20	"
Irakaslearekiko hizkuntza	32,07	"
Ikastetxe-mota	19,52	"
Euskarazko lan-proporzioa	13,41	"
Adimen-koefizientea	12,82	"
Zona soziolinguistikoa	10,20	"
Gelakoen hizkuntza	6,37	"

Esplikaturiko bariantza: % 73

Euskarari dagokionez, eta lagineko populazio guztia batera hartzen badugu, *eredua* agertzen da aldagai indartsuena. Aldagai honek erabakitzen du neurri handienez ikasleak zein mailatan menperatzen duen euskara: lehenik D eredua agertzen da, gero B eta azkenik A. Bistan da *irakaslearekin erabiltzen den hizkuntza* izeneko aldagaiak ereduarekin duen lotura. Aldagai hau ere esanguratsua da, maila txikiagoa erakusten badu ere.

Beste faktore garrantzizko bat, bigarrena hain zuzen, *ama-hizkuntza* da. Guraso biek edo bietariko batek euskaraz jakitea, etxean euskara entzutea etab. ahanzt ezineko baldintzak dira euskara-maila ona erdiesteko.

Ikaslearen *ezaugarri pertsonalak* etorriko lirateke hurrena; hau da, bere *eskola-errendimendua* eta *adimen-koefizientea*. Arlo horietan ongi da biltzanek euskara-puntuazioetan ere ongi ibiltzeko posibilitate handia dute.

Ikastetxe-motak badu eragina euskararen ezaugarren. Ikastoletan ematen da euskara-mailarik onena. Nahiko atzetik jarraitzen diete ikastetxe pribatuak eta publikoak. Gogoan izan behar da ikastoletan D eredua dela nagusi.

Euskarazko lanaren proportzioak ere badu zerikusirik, noski. Proportzio hori altuagoa den heinean hobetzen dira puntuazioak ere.

Zona soziolinguistikoa heldu da hurrena. Eskualdea euskaldunagoa den neurrian ikasleen batezbesteko puntuazioa ere altuagoa da euskaraz.

Azkenik, gelako ikasleen arteko *erlazio-hizkuntza* aipatu behar: beti edo gehienetan euskaraz egiten dutenak dira puntuazioetan ere ongien daudenak.

Analisi hau argigarria bada ere, euskarazko puntuazioek merezi dute ereduaz ereduko azterketa sakonago bat. Egin dira, beraz, aldagai anitzeko bariantza-analisiak eredu bakoitzean. Hona hemen emaitzak:

A eredua: (euskaldunik gabe)

	F	Signif.
Gelako euskaldun-portzentaia	19,28	(0.000)
Ikastetxe-mota	13,59	(0.000)
Irakaslearekiko hizkuntza	13,57	(0.000)
Eskola-errendimendua	11,79	(0.000)
Sexua	6,63	(0.010)
Euskarazko lan-proportzioa	5,69	(0.001)
Zona soziolinguistikoa	4,70	(0.003)
Adimen-koefizientea	4,42	(0.000)
Eskolako lagunekiko hizkuntza	3,88	(0.021)

Esplikaturiko bariantza: % 25,7

A ereduko analisi honetarako alde batera utzi dira ikasle euskaldunak. Hala ere, nabari da *giro euskaldunarekiko kontaktuak* eragina duela ikasle erdaldunetan ere. *Ikastetxe-motari* dagokionez, pribatua publikoa baino pixka bat hobeto agertzen da. Bestalde, aipagarria da *neskek* mutilek baino puntuazio hobeak lortzen dituztela.

B eredua:

	F	Signif.
Eskola-errendimendua	12,64	(0.000)
Ikastetxe-mota	9,31	(0.000)
Euskarazko lan-proportzioa	9,27	(0.000)
Adimen-koefizientea	2,57	(0.020)

Esplikaturiko bariantza: % 47

B ereduan aldagairik indartsuena ikaslearen *eskola-errendimendua* da. *Ikastetxe-motaka*, ikastetxe pribatuak dira puntuazio altuenak lortzen dituztenak, baina kontuan hartu behar da pribatuetako B ereduan etxetiko euskaldunen portzentaia altua dagoela, beste sareetan ez bezala. Eredu honetan *euskarazko lanaren proportzioa* oso garrantzizkoa da. Euskarazko emaitzarik onenak B eredu intentsiboetan ematen dira, hau da, euskarazko lanaren proportzioa % 60tik % 80ra bitartekoa den geletan.

D eredua:

	F	Signif.
Eskola-errendimendua	16,77	(0.000)
Adimen-koefizientea	7,80	(0.000)
Irakaslearekiko hizkuntza	3,18	(0.024)

Esplikaturiko bariantza: % 30,4

D ereduan ere *faktore pertsonalak* (eskola errendimendua, adimen-koefizientea) dira pisurik handiena erakusten dutenak. Ondoren *irakaslearekiko hizkuntza* dator. Azken aldagai honek zera esaten digu: irakaslearekin gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleak (oso gutxi dira) besteak baino atzerago daudela euskara-puntuazioetan.

Atentzioa deitzen du B eta D ereduetan *etxeko hizkuntzak eta lagunerekikoak* ez dutela signifikaiziorik agertzen. *Zona soziolinguistikoa* ere ez da ageri aldagai esanguratsuen artean. Badirudi, beraz, *eskola-aldagaiek*, eta batez ere *ezaugarri pertsonalekin* lotutakoek (errendimendua, adimen-koefizientea) determinatzen dutela neurri handian idatzizko hizkuntzaren ezauguera.

Gaztelania-puntuazioekin ere bariantza-analisi berak egin dira. Hona hemen aldagai esanguratsuen F estatistikoak:

Lagin osoa**GAZTELANIA**

	F	Signif.
Eskola-errendimendua	69,1	(0.000)
Adimen-koefizientea	36,15	(0.000)
Etxeko hizkuntza	10,49	(0.000)
Zona soziolinguistikoa	8,98	(0.000)
Ikastetxe-mota	4,06	(0.017)
Aitaren maila sozioprofesionala	2,45	(0.023)

Esplikaturiko bariantza: % 34.8

Gaztelaniazko puntuazioekin lotuen agertzen diren aldagaiak hauek dira: lehen-lehenik ikaslearen *ezaugarri pertsonalak*, hau da bere eskola-errendimendua eta adimen-koefizientea. Beste edozein aldagai sozial edo eskolarren gainetik gaztelaniaren menperatze-maila ikaslearen lanerako gaitasunaren eta beste gaitasun intelektualen arabera agertzen da. Gero *inguruneko hizkuntza-giroa* dator: hau da, zona soziolinguistikoa, etxeko hizkuntza edota gelakoen arteko hizkuntza bezalako aldagaiak. Giro erdaldun samarrean bizi direnek abantaila erakusten dute, giro euskaldunetan bizi direnekin konparatuz. *Ikastetxe-motak* ere badu nolabaiteko eragina, nahiz oso handia izan ez: ongien ikastetxe pribatuak gelditu dira, gero ikastolak eta azkenik ikastetxe publikoak. *Aitaren maila sozioprofesionala* aipatu behar azkenik: egoera profesional oneko gurasoen seme-alabek gaztelania-puntuazio hobeak izateko aukera dute. Eta alderantziz, lanbide xumea dutenen seme-alabek puntuazio zerbait txarragoak izateko probabilitatea dute.

Beste zenbait aldagaik ez du eraginik erakutsi gaztelania-mailan, esate baterako gelaren *irakastereduak*.

Gaztelania-mailaren azterketa hau berau ereduak egiteak ez du agian euskarazkoak adinbateko interesik, jakina bait da ereduak euskarazkoak mailan dutela batipat eragina, eta ez hainbeste gaztelania-mailan. Hala ere analisiok, jakingarri gisara, egin dira eta emaitzak hauek dira:

A ereduak

	F	Signif.
Eskola-errendimendua	52,17	(0.000)
Adimen-koefizientea	23,31	(0.000)
Zona soziolinguistikoa	6,24	(0.000)
Aitaren maila sozioprofesionala	3,14	(0.005)

Esplikaturiko bariantza: % 36.62

A ereduan *ezaugarri pertsonalak* dira gaztelania-maila ongien esplikatzeko duten aldagaiak. *Zona soziolinguistikoa* izeneko aldagaiaren emaitza ez da oso ordenatua agertzen analisisian. Hala ere, badirudi gaztelaniaz bajuen azaltzen direnak zona oso euskaldunetakoak direla.

B eredua

	F	Signif.
Eskola-errendimendua	11,89	(0.000)
Zona soziolinguistikoa	6,73	(0.000)
Adimen-koefizientea	5,36	(0.000)
Ikastetxe-mota	3,77	(0.024)

Esplikaturiko bariantza: % 45.1

B ereduan ere *ezaugarri pertsonalek* pisu handia hartzen dute. *Zona soziolinguistikoari* dagokionez oso zona euskaldunetakoek puntuazio zertxobait bajuagoa ageri dute. *Ikastetxe-motari* dagokionez, ordena hauxe da: pribatua, ikastola, publikoa.

D eredua

	F	Signif.
Eskola-errendimendua	11,95	(0.000)
Adimen-koefiziente	6,20	(0.000)
Etxeko hizkuntza	3,73	(0.011)
Zona soziolinguistikoa	3,71	(0.012)

Esplikaturiko bariantza: % 35.9

D ereduak ere besteen antzeko panorama erakusten du. Pisu handiena *ezaugarri pertsonalek* erakusten dute. *Etxeko hizkuntza* gaztelania den neurrian, honek badu eraginik gaztelania-mailan ere. *Zona soziolinguistikoari* dagokionez, besteetan bezala gertatzen da: eskualde erdaldu-netakoek maila pixka bat hobe erakusten dute.

7. ERDALDUNAK EUSKALDUNTZEN: AUKERA DESBERDINEN AZTERKETA

Etiket erdaldun diren hurrek eskolan euskaraz ongi ikas dezaten irakasteredu desberdinen artean aukera daiteke. Irakasteredu horien barnean ere estilo, intentsitate eta errealitate desberdinak aurki daitezke. Azterlanaren zati honetan aukera horietako batzuk konparatu nahi izan ditugu. Hauexek hain zuzen ere:

— **D ereduko erdaldunak:** hau da eredu honetan ikasten duten ikasle erdaldunen multzoa. Ikasle hauek, proportzio handiagoan edo txikiagoan ikasle euskaldunekin batera eskolatuak daude.

— **B eredu arrunta:** horrela deitu diegu gutxi gorabehera egunaren erdia euskaraz eta beste erdia gaztelaniaz ematen duten B erduei. Kana-dako murgiltze goiztiar partziala izeneko programaren antzekoa izango litzateke.

— **B eredu intentsiboa:** horrela deitu diegu denboraren erdia baino dezentez gehiago (% 60-80) euskaraz ematen duten B erduei. Normalean B eredu arruntean baino irakasgairien bat gehiago ematen dute euskaraz. Murgiltze goiztiar osoaren antzeko programa da.

Konparaketa hau ahalik eta modu egokienean egiteko antzeko ezau-garriak dituzten ikasleak konparatu behar dira. Horregatik, aurrez definituta zegoen laginetik aukeraketa bat egin da, zenbait baldintza ezarriaz. Hona hemen hiru multzo horietako sujetuek bete behar izan dituzten baldintzak:

1. Etiket erdaldunak izatea: hau da, bai aitarekin eta bai amarekin gaztelaniaz hitz egitea.

2. Adimen-maila normalekoak izatea zentzu zabalean; oso maila altukoak eta bajukoak baztertuaz egin da hori.

3. Aitaren lanbide-maila erdiparekoa izatea: administraria, erre-presentantea, arduraduna, langile espezializatua...

4. Ikasleak eskola-errendimendu normala edo ona izatea: hau da, OHOk 7.mailako Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Matematikak, Atzerri Hizkuntza, Euskara eta Gaztelania irakasgaiak gaindituak izatea.

5. Bizi den herria 20.000 biztanletik gorakoa izan dadila; hau da, aski giro urbanokoa izatea.

Hautespen hauek eginda, honelako sujetu-kopuruak lortu dira:

- D ereduko erdaldunak: 24 ikasle, 8 ikastetxetan banatuak.
- B eredu arruntekoak: 11 ikasle, 2 ikastetxetakoak.
- B eredu intentsibokoak: 13 ikasle, 3 ikastetxetakoak.

Hiru multzo horietatik aparte beste bi hartu dira, kontrol gisa:

— **A ereduko ikasle erdaldunak.** Talde esperimentalen baldintza berberak aplikaturik 331 lagun ditugu, 36 ikastetxetan banatuta.

— **D ereduko ikasle euskaldunak.** Ama-hizkuntzaren baldintza aldatzen da kasu honetan, beste ezaugarri guztiak berdin mantentzen direlarik. Multzo honetako 40 ikasle ditugu, 9 ikastetxetan banatuak.

Ikus dezagun orain ikasle hauek zer-nolako emaitzak dituzten euskarazko eta gaztelaniazko probetan. Hona hemen euskarazko proben batezbestekoak:

EUSKARA-PUNTUAZIOAK

Froga	Heina	A kontrola	B arrunta	B intentsiboa	D erdaldunak	D kontrola
IU1	0-12	6,48	10,18	9,84	10,79	10,55
IU2	0-15	3,63	5,63	8,76	8,50	10,05
IDAZMENA	0-6	1,74	3,45	4,00	4,41	4,45
N		331	11	13	24	40

Alde batetik, garbi dago A ereduko euskara-maila oso bajua dela. Baina euskara-puntuazioen konparaziorako kontrol-taldea D eredu euskalduna da. Azter ditzagun, bada, emaitzak probaz proba.

Azterlan honen beste zati batean aipatu den bezala, Irakurriaren Ulermena 1 (IU1) froga oso erraza da, A eredukoentzat aproposa. Beste lau multzoetako ikasleen artean froga honek ez du diferentzia esanguratsurik sortzen.

Irakurriaren Ulermena 2 (IU2) proba egokiagoa da multzo hauetarako. Hemen garbi ikusten da Dko kontrol-taldeko ikasle euskaldunek beste multzoetako erdaldunek baino puntuazio hobea lortzen dutela. Bes-

talde, B arrunteko ikasleak beste multzoetakoak baino bajuago gelditu dira, aldea esanguratsua delarik.

Idazmen-proban B intentsiboa, D erdaldunekoaren eta D kontrol-ekoaren artean ez dago diferentzia esanguratsurik, baina B arruntarekiko diferentzia estatistikoki esanguratsua da.

Badirudi, beraz, B intentsiboa eta D erdaldunaren artean ez dagoela, irakurriaren ulermenari eta idazmenari dagokionez behintzat, alde nabarmenik.

Honelako zerbait aipatu izan lehenago ere: Kanadako zenbait ikerlarik (F. Genesee, N.E. Holobow, W.E. Lambert et L. Chartrand, 1989) dioenez hizkuntza baten esposizio-denbora gehitzeak ez dakar, besterik gabe, emaitzen hobekuntza, batez ere esposizio-denbora altu samar batetik gora. Ildo horretatik gero eta garrantzi handiagoa eman behar zaio bigarren hizkuntzari dedikatzen zaion denbora horren nolakoari, klase-emankizun motari, etab.

Bestalde, murgiltze-programa partzial bat jarraitu dutenek, B eredu arruntekoek alegia, ez dute lortzen 2. hizkuntza programa intentsiboetako, ikasle erdaldunek bezain ongi menderatzea. Eraitza honek adieraz dezake talde honetako ikasleek benetako zailtasunak izan ditzaketela testu konplexu samarrak ulertzeko edota idea zailak adierazteko.

Kontrolleko D ereduko ikasleak, berriz (hau da, etxetik euskaldun direnek) beste multzoetako "erdaldunek" baino puntuazio pixka bat hobeak lortzen dituzte, batipat IU2 proban.

Ikus ditzagun orain ikasle-multzo hauek gaztelaniazko probetan lortzen dituzten puntuazioak:

GAZTELANIA-PUNTUAZIOAK

Froga	Heina	A kontrola	B arrunta	B intentsiboa	D erdaldunak	D kontrola
CL1	0-12	8,34	9,00	7,76	8,91	8,40
CL2	0-15	9,45	9,63	8,92	9,54	8,40
EX. ESC.	0-6	4,37	4,54	4,53	4,75	4,27
N		331	11	13	24	40

Goiko koadroan ikus daitekeenez gaztelaniazko puntuazioetan ez dago alde nabarmenik multzoen artean: ikertu nahi diren multzoek (haur erdaldunak elebiko programetan) A ereduko kontrol-taldeek bezalako puntuazioak lortzen dituzte. Hau da, jasotzen duten gaztelaniazko klaseen proportzioak ez dauka isladarik gaztelaniazko puntuazioetan. Nahiz erabat gaztelaniaz eskolatuak izan, nahiz B eredu arruntean, nahiz B intentsiboan, eta nahiz ia erabat euskaraz eskolatuak izan, ikasle hauek gaztelania-maila

berdintsua lortzen dute. Are gehiago, etxetik euskaldunak diren eta D ereduan ibili diren ikasleek ere pareko puntuazioak lortzen dituzte.

Nola esplika daiteke hori? Kontuan hartu behar da gaztelania hizkuntza indartsua dela Autonomi Elkarteko herri ertain eta handietan. Etxean, kalean, telebistan jasotzen den hizkuntza da. Eskolak mantenimendu-programa egokia eskaintzen badu, ez da oso zaila hizkuntza hori ikasleengan landu eta garatzea. Eraitza hau atzerriko murgiltze-programetan lorturiko emaitzekin bat dator, eta irakaskuntza elebidunaren aldeko oso datu garrantzizkoa da.

8. EUSKARAREN ERABILERA D EREDUAN

Azterlan honen beste interesgune bat, ikasleen artean euskarak duen erabilera da. Ikusi dugu lehenago eredu bakoitzean ikasleek zer erantzun duten gai honi buruz (ikus 15 or.). D ereduak biltzen ditu euskararen erabilera zabala izateko baldintzarik onenak: etxetik euskaraz dakiten ikasleen portzentaia altu samarra da (ikus 13 or.), eta irakaskuntza euskaraz bideratzen da ia osorik. Horregatik eredu honetara mugatu gara azpiaztarkeria honetan.

Hala ere, D ereduko eskola guztiak ez dira berdinak. Hizkuntz erabilerari dagokionez diferentzia handi bat zona soziolinguistikoari dagokiona izan daiteke: eskola batzuk eskualde euskaldunetan dauden bitartean, beste batzuk zona erdaldunagoetan kokatzen dira, horrek ikaslegoaren hizkuntza-tipologian dakartzan ondorioekin.

Kontingentzia-etaulak

Diferentzia hauek hobeki aztertzeke zenbait kontingentzia-etaula egin dira, zenbait aldagai gurutzatuz.

- Esate baterako, zona soziolinguistikoa eta gelako euskaldun-portzentaia gurutzatzen baditugu, zera ikus daiteke: etxetik euskaldun (1) diren ikasleen portzentaia altua da 4., 5. eta 6. zonetako (2) ikastetxeetan,

(1) Guraso bat behinik behin euskalduna dutenak hartu dira ikasle euskalduntzat.

(2) Azterketa honetarako bereizi diren zona soziolinguistikoak lehen ere aipatu dira (ikus 18 or.). Hauexek dira:

1. zona: euskaldunik ez

2. zona: 0 - % 4

3. zona: % 5 - 24

4. zona: % 25 - 49


5. zona: % 50 - 74

6. zona: % 75 - 100

% 80 ingurukoa edo handiagoa, baina 3. zonan portzentaia hori ikaragarri jaisten da, % 30era iristen ez delarik.

- Pasa gaitezen orain eskolako erabileraren arlora. Ikaskideekin nagusiki euskaraz (beti edo gehienetan) aritzen diren ikasleen portzentaia garbi-garbi jaisten da zona erdaldunagoa den neurrian. Zona euskaldun-euskaldunetan euskara ohizko harreman-hizkuntza da, baina eskualde populatu eta erdaldunagoetan euskararen erabilpen-tasa jaitsiz doa, 3. zonan gaztelania, garbi-garbi, nagusi delarik.

13. irudia
Lagunekin nagusiki euskaraz egiten dutenen portzentaia, zonaren arabera




- Eskola utzi eta kaleko lagunartera jo ezkeror, euskaraz aritzen diren portzentaiak jaitsi egiten dira, baina zonarekiko lotura nabaria berdin mantentzen da. Kaleko lagunekin erdara nagusi da 3. eta 4. zonetan. Euskaldungoaren portzentaia % 50etik gorakoa den lekuetan, ordea, euskarak badu presentzia ona lagunartean.

- D ereduko ikasleak euskaraz ongi ikasteko baldintza onetan daude: eskolan euskaraz ikasteko aukera osoa dute; asko etxean euskaraz haziak dira, etab. Hala ere, ereduak, besterik gabe, ez du segurtatzen euskararen erabilera-maila altu bat. Eskualde erdaldunenetan fenomeno hau ez da hain harrigarria: azken batean, ikasle gehienak etxetik erdaldun dira. Baina kontraste hau nabarmenagoa gertatzen da zenbait eskualdetan, esate baterako 4. zonan. Zona hori ez da, berez, oso euskalduna. Kaleko giroa erdalduna da nagusiki. Hala ere D ereduko geletan euskaldunen seme-

alaba asko elkartzen dira. Baina beren euskara-erabilerak, irudian soma daitekeenez, zonarekin lotuagoa dirudi beren gelako hizkuntza-osakerarekin baino.

- Datuak beste ikuspuntu batetik aztertuz, D ereduko gelak ikastetxe-motaka begira ditzakegu. OHOk 8. mailan D ereduko gela gehienak ikastoletakoak dira, ondoren herri-ikastetxeetakoak eta gutxienak sare pribatuan daude. Hiru sareetan, etxetikako euskaldunak nagusi dira D eremuan. Sare pribatuan, hala ere, euskararen erabilera bajuagoa nabarmen-tzen da ikasleen artean.

- Ikasleak ama-hizkuntzaz berezten badira, berriz, zera ikus daiteke: etxetiko euskaldunak erdaldunak baino proportzio handiagoan aritzen direla euskaraz eskolako lagunekin.



- Garbi dago, ordea, etxetiko "erdaldunak" zona erdaldunetan aurkitzen direla batipat. Horregatik zonaz zona azertu nahi izan dugu ama-hizkuntzaren eta erabileraren arteko uztardura. Analisia era honetan eginik ere argi ikusten da erdaldunek etxetik euskaldun direnek baino gutxiago darabiltela euskara. Esate baterako, 3. zonan etxetiko euskaldunen % 33 inguru aritzen da nagusiki euskaraz eskolako lagunekin, eta etxetiko erdaldunen % 17a. Konstatazio hau ez da harritzekoa. D eremuan biltzen diren bi populazio hauek oso abiapuntu eta xede desberdinak dituzte: batzuk etxetik, erdaldun dira; beraientzat, D eredia euskalduntze-eredua da, bere bi-

garren hizkuntza ikasteko aukera ematen dien programa. Euskaldunentzat, berriz, D eredua beren ama-hizkuntzan funtzionatzen duen eskolatzeprograma normala da.


Hizkuntza-aldaketako programarik intentsiboenetan ere, erabilera-rena izaten da edozein lekutan koska nabarmenenetariko bat. Programa intentsibo hauetan, ikasleak bigarren hizkuntzaren maila on batera iristen dira, baina ez dute beti jatorrizko hitzunen erraztasuna lortzen. Honelako ikasleei normalean kostatzen zaie, gutxi edo gehiago, bigarren hizkuntza hori bere harreman-hizkuntza bihurtzea. Sinpleegia litzateke agian sujetu erdaldunen erabilera tasa ingurunearen euskalduntasunari bakarrik leporatzea. Estudio batzuek, metodologiari edo irakaslearen jokabideari ere aparteko garrantzia ematen diete erabileraren auzi honetan.

Gelen sailkapena

Gogoan hartu behar da erabileraren neurketa hau ikasleen beraien erantzunen gainean eraikita dagoela, horrek ekar dezakeen subjektibitate-kargarekin. Irakasleei ere galdetu zitzairen bere gelako ikasleen arteko hizkuntz erabilari buruz. Ikasleen eta irakasleen erantzunak ez dira guztiz konparagarriak. Lehenengoek norbere hizkuntz ohitura adierazi zuten; irakasleek, berriz, orokorki erantzun zuten beren gelari buruz. Hala ere, erantzunek oso lotura handia dute: bat datoz neurri handi batean. Are gehiago, batzutan, ikasleen erantzuna irakasleena baino errealistagoa dela dirudi, gaztelaniaz aritzen direla errazago aitortzen bait dute.

Bestalde, hizkuntzaren erabilera talde mailako fenomenoa izan ohi da. Gehienetan multzoak norbanakoak baino indar gehiago izan ohi du. Ez

15. irudia
Gela-motak euskaldun-portzentaiaaren arabera




da, beraz, txorakeria hizkuntz portaera neurri handi batean ikasgela mailan definitzen dela uste izatea. Ildo horretatik abiatuz lagineko gela-mota desberdinen sailkapena osatu zen. Lehenik gelako euskaldunen (etxetiko euskaldunak, alegia) portzentaia hartu zen irizpidetzat. Lortu zen sailkapena ondoko grafikoan ikus daiteke.

D ereduko ikasle gehienak (% 70 inguru) ikasgela aski euskaldunetan daude, baina erdaldunez osatutako gelak ere ez dira gutxi, irudian ikus daitekeen bezala.

Sailka ditzagun orain gelak bertako ikasleen hizkuntza-jokabidearen arabera. Honetarako ikasle bakoitzak bere jokabideaz eman duen erantzuna hartu da oinarri. Ikasle batzuk euskara erabiltzen dute nagusiki ikas-kideekin; beste batzuk, aldiz, gaztelania. Ikasle horien portzentaia kontuan izanik eraiki dira ondoko gela-motak:

16. irudia
Gela-motak, euskara-erabilpenaren arabera



Oso giro euskalduna duten D ereduko gelak ez dira % 50era iristen. Giro aski euskalduna dutenak, berriz, % 20tik behera daude.

Bestalde, oso giro erdalduna duten taldeak badira: ikasleen % 20tik gora horrelako geletan dago. Gela-mota hauek badute aurreko irudiko motekin zerikusirik. Nolanahi ere, bi irudiak alderatuta zera somatzen da: erdaldun-kopuru altu samarra duten geletan hizkuntz erabilpena gaztelania aldera lerrotzen dela.

Korrespondentzia anitzen analisia

Erabileraren problematika hau hobeto ezagutzeko asmoz analisi faktorial bat egin da ("korrespondentzia anitzen analisia") datu-bilketare-

kin jasotako zenbait aldagaiz baliaturik. Azterketa honek muturreko bi ezaugarri-multzo erakutsi ditu. Mutur batean euskarazko mundu bat agertzen da; beste muturrean, berriz, gaztelaniazko bizimodu bat, biak D ereduaren barnean.

Analisi-mota honek eskaintzen duen "sailkapen automatikoa" erabili da. Programaren aukera honek bi ikasle-mota edo multzo osatu ditu, goian aipatu diren bi "mutur" horiekin zerikusi handia dutenak.

Lehenengo multzoko ikasleek D ereduaren gehiengoa osatzen dute. Oso gela euskaldunetan daude: beren geletan gehien-gehienak etxetik euskaldunak dira, eta gainera euskaraz egiten dute beren artean. Ia denek guraso bat behinik behin euskalduna dute. Erdia baino gehiago etxeko giro oso euskaldunean bizi da. Gelako lagunekin egiteaz gain, kalekoekin ere euskaraz egiten dute gehienetan. Bizi diren eskualdean bizilagun euskaldunen proportzioa % 25etik gorakoa da. Erdipareko maila sozialeko gurasoak dituzte, aita, kasu askotan, langile espezializatua delarik.

Bigarren multzoan oso bestelako ikasleak biltzen dira. Hauen geletan etxetik erdaldun askotxo dago (% 60tik gora) eta gaztelania da ikaskideen arteko hizkuntza nagusia. Ikasle gehienak zona nahiko erdaldunekoak dira, euskaldungoa % 25etik beherakoa den lekuetakoak. Kaleko lagunekin ere gaztelaniaz aritzen dira gehienak. Askorentzat, beraz, euskara bigarren hizkuntza da, eskolakoa.

Multzo bakoitzaren tamainari dagokionez, lehenengoa bigarrena baino handiagoa da ikasle-kopuruz.

Euskararen erabilpena beraz, aski jaso da inguru euskaldunetako gela euskaldunetan (jatorrizko hiztunez osatuak bait dira gainera) baina elkarren ondoan doazen bi faktoreren arabera jaitsiz doa: zona soziolinguistiko erdaldunagoa eta jatorri erdalduneko sujetu-kopuru altuagoa gela barruan.

Bi faktore horiek praktikoki aldaezinak dira eskolarentzat. Horrek ez du esan nahi euskararen erabilera sustatzeko beste ahaleginik edo saiorik martxan ipintzeak merezi ez duenik. Izatez, ikastetxe batzuk badituzte horrelako ekintza-planak, eta emaitza onik ere lortu izan da.

9. AZALPEN BATERABILDUA

Azterlan honetan OHoko 8. mailako ikasleek duten irakurmen eta idazmen-maila ebaluatzen da. Jaso diren emaitzak EIFE azterlanetan bildu zirenen ildotik doaz. Honela, OHoko bigarren, bostgarren eta orain zortzigarren mailan egin diren ebaluazioekin, irakastereduen hizkuntz bilakaera nolakoa den hobeto ezagutu dezakegu.

Jaso diren emaitzak eta ateratzen diren ondorioak ezin izan daitezke behin betikoak. Irakaskuntza elebidunean daramagun bidea oso laburra da oraindik, eta zer ikasi asko dago hemendik aurrera ere. Esperientziari eta bide berriei bere denbora eman behar zaie frutu sendoak ematen hasteko. Hala ere, orain arteko bideak eta neurketa-saioek zenbait gauza erakusten dute.

Euskal Herriko irakaskuntza-sistemaren helburua ikasleak, beren eskola-garaia amaitutakoan, elebidun izatea da. Helburu hori ez da amets hutsa; lor daiteke, eta garbi dago hainbat eta hainbat kasutan lortzen dela, bai etxetik euskaldunak direnekin eta bai etxetik erdaldunak direnekin. Orain artean lorpen horiek ikasle guztiengana iritsi arazteko egokierarik eta denborarik ez da izan. Baina bidea irekia dago, eta gero eta haur gehiagok dute elebidun (edo eleaniztun) izateko aukera hori.

Gaztelaniari dagokionez erreferentziazat A eredukoen hizkuntza hartzen badugu, garbi ikus daiteke B ereduan eskolatutako ikasleek ere maila hori mantentzen dutela oinarrizko hezkuntzan zehar. Are gehiago, D ereduko ikasleek ere, nahiz ia erabat euskaraz eskolatuak egon, aski txikitatik lortzen dute gaztelania-maila on bat, ia beste eredukoen parekoa; eta OHoko 8. mailara iristen direnerako beren gaztelania jatorrizko hitzunen pare dago irakurmen eta idazmen-probetan (oraingoan mintzamen probarik pasatu ez bazaie ere, nahikoa datu daude beren ahozko hizkuntza aski garatua dagoela esateko).

Euskararen kasuan D eredu hartu behar erreferentzia-puntutzat. A eredukoak, dudarik ez, oso urruti gelditzen dira maila horretatik: idatzizko testu sinple-sinpleak ulertzeko gai dira; baina hortik aparte, testu zailagoak irakurtzerakoan, edo idazmenean (eta segurutik mintzamenean berdin), ez dute, salbuespenak salbuespen, gutxienezko maila bat eskuratzen. Hainbat urtetan euskara ikasten ibili eta gero, lorpenak motz gelditzen direla esan daiteke.

B eredu, berriz, erdibidean gelditzen da. Aipagarria da, lehen esan den bezala, ikasle hauek mantentzen duten gaztelania-maila ona, baina euskarari dagokionez B eredu desberdinak soma daitezke. Orohar zera esan daiteke: B eredu "aurruntan" euskara askotxo ikasten dute, batez ere A eredukoekin konparatzen baditugu. Hala ere, beren euskara-maila hori gaztelaniaz duten mailatik urrun samar gelditzen da oraindik.

Aldiz, B eredu "intentsiboan", hau da euskara aldetik indartsuago den B ereduan euskara-maila aski jasoa lortzen da, hain zuzen D ereduko ikasle erdaldunek lortzen dutenaren antzekoa. B ereduarentzat ikasleek euskara-maila altu samarra lortzea ezinbestekoa da, euskaraz ematen diren irakasgaietako edukinez behar bezala jabetu ahal izan daitezen.

Faktore eragileen azterketari lotzen bagatzaizkio, beste zenbait ausnarketa egin daiteke. Ikasleen gaztelania-maila esplikatzerakoan ikaslearen ezaugarri pertsonalak, hala nola eskola-errendimendua edo adimenoefizientea, dira osagai garrantzikoena. Horrez gain, esanguratsu agertzen dira inguruko hizkuntza-giroa, ikastetxe-mota edota aitaren maila sozioprofesionala. Aldiz, irakasteredua ez da aldagai garrantzizko bezala agertzen.

Euskararen ezauguera aztertzerakoan, oster, ezaugarri pertsonalak faktore garrantzizkoa izanagatik, beste faktore batzuk aurretik kokatzen dira. Aldagai horietatik indartsuena pedagogikoa da gainera: irakasteredua, hain zuzen ere. Ikaslea zein eredutan eskolatua dagoen erabakiorra da izango duen euskara-maila aurrikusteko orduan. Beste faktore oso inportantea ikaslearen ama-hizkuntza da. Gaztelaniaz ez bezala, ezaugarri honek pisu handia du euskara-mailan. Beste faktore txikiago batzuk baina hala ere esanguratsuak aipatzekotan, hona hemen batzuk: irakaslearekiko eta ikaskideekiko hizkuntza, ikastetxe-mota edota zona soziolinguistikoa.

Irakaskuntzaren kalitatea hobetu nahi bada, goian aipaturiko aldagai guzti horiei eta beste hainbati ere erreparatu beharko zaie. Horietariko batzuk, gainera, moldagarriagoak dira, hain zuzen aldagai pedagogikoak direlako: horiek hobetzera zuzendu behar dira eskola-arduradunen eta komunitatearen ahaleginak.

EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

GLOTODIDAKTIKA-LANAK

Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak:

- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner* (1).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika* (2).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi* (3).
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
- HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
- BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (18).
- BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (22).
- BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia* (29).
- TREBATZEN. OHO-ko GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZARIKETAK. *M. Sainz* (23).
- EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. *J.M. Etxebarria. J.A. Mujika* (31).
- OINARRIZKO HITZAK EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. *I. Olaziregi* (34).

Bideo-gidoiak / Txotxongiloak / Musika

- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. *I.M. de Lezea-Kukubiltxo* (6).
- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *I.M. de Lezea* (9).
- ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I.M. de Lezea* (14).
- IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo* (10).
- KONTU KONTARI. *L. Iriondo* (20).
- AMONAREN IPUINAK. *E. Genua* (12).
- IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
- JOLASEAN. *I. Urbieta* (11).
- MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbieta* (21).

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)

- EUSKALTZANDIAK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
- EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA (7).
- EGA. 1988-89ko AZTERKETAK (35).

Hizkuntz testak eta ebaluazioak

- EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D eredu-ko eskolaurre-ko). *G. Ajuria - I. Ibarra - J. Sierra* (16).
- GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA. (B eta D eredu-ko OHO-ko 2. Mailarako). *I. Olaziregi, J. Sierra* (26).
- GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA. (B eta D eredu-ko OHO-ko 5. Mailarako). *I. Olaziregi - I. Sierra* (25).
- GALBAHE C1 Y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testak OHO-ko 2. eta 5. mailarako). *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).
- ZORTZI-A. HIZKUNTZ TESTA (A eredu-ko OHO-ko, mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D eredu-ko eskolaurre-amaieratako). *I. Olaziregi - I. Sierra* (30).

OHARRA: Liburuan eskuin aldeko zenbakitxoek argitalpen sorta bakoitzako korrelazio-zenbakiak dira.

- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. (euskaraz-gaztelaniaz-frantsesez-ingelesaz). *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra* (H.U.I.S. - H.P.I.N.).
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).
- EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. *J. Sierra - I. Olaziregi* (36).
- EUSKARA FROGAK. Irakurmena eta idazmena OHO-KO 8.mailarako. *I. Olaziregi - J. Sierra* (37).
- HINE. HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN. *J. Sierra - I. Olaziregi* (38).

HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. *A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte* (1).
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. *J. M. Irazola* (2).
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. *A. Arejita - J. M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte* (4).
- HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. *I. Artola - J.M. Berasategi - G. Nazabal - I. Olaziregi* (3).

ZABALKUNDE LANAK

Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)

- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1990. *M.K. Kamino* (22).
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1990. *M. Usabiaga* (23).
- HEZKUNTZ SOFTWAREAREN BILDUMA 1990-91. *M. Usabiaga* (27).
- EIMA. EKINTZA PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986 (14).
- EIMA. LAGUNTZA DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85 (10).

Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)

- IRALE. AURKEZPEN-TXOSTENA 1991-92 (26).

Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA PROGRAMA)

- IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. *I. Artola - J.M. Berasategi - I. Muruaga* (15).
- EUSKAL GIROTZE-EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. *R.M. Ardanza - I. Artola - J.M. Berasategi - L.M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga* (16).
- ESKOLA-ANTZERKIA (18).
- URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMA 1990.
- GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa).
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa).
- ESKOLA HIZTUN BILA (28).

Beste txosten batzuk

- IRALE (azalpen txostentxoak lau hizkuntzatan) (5).
- EGA (azalpen txostentxoak lau hizkuntzatan) (6).
- EUSKARA GAUR EGUNEKO HEZKUNTZA ARAUBIDEAN / EL EUSKERA EN LA NORMATIVA ESCOLAR VIGENTE (20).
- EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE (24).
- EUSKALIRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA (25).